



2020SPLE0012
12.BILERA: OHIKOA 2020/11/26

UDALEKO PLENOA. BILERA-AKTA ACTA del PLENO MUNICIPAL

BILERA ZK.: 12
EGUNA: 2020/11/26
HASIERA ORDUA: 19:02
AMAIERA ORDUA: 19.45
TOKIA: Udaleko Batzar Aretoa

Nº: 12
DÍA: 26/11/2020
HORA DE INCIO: 19:02
HORA DE FINALIZACIÓN: 19.45
LUGAR: Salón de Plenos del Ayuntamiento

BERTARATUAK:

Gilen Garcia Boyra, **alkatea**

EH Bildu udal taldea

Itziar Irizar
Aritz Larrañaga
Antxon Etxeberria
Nerea Arrizabalaga
Antxoka Elorza

Debarren Ahotsa udal taldea

Pedro Bengoetxea
Isidor Lamariano
Ane Egidazu
Enrique Salgado

EAJ-PNV udal taldea

Iñigo Cambroner
Eneritz Gomez
Miren Esnal Laskibar

Idazkaria: Jorge González Endemaño

ASISTENTES:

Gilen Garcia Boyra, **alcalde**

Grupo municipal EH Bildu

Itziar Irizar
Aritz Larrañaga
Antxon Etxeberria
Nerea Arrizabalaga
Antxoka Elorza

Grupo Municipal Debarren Ahotsa

Pedro Bengoetxea
Isidor Lamariano
Ane Egidazu
Enrique Salgado

Grupo Municipal EAJ-PNV

Iñigo Cambroner
Eneritz Gomez
Miren Esnal Laskibar

Idazkaria: Jorge González Endemaño

ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK:

TEMAS TRATADOS Y ACUERDOS:



2020SPLE0012
12.BILERA: OHIKOA 2020/11/26

1. Osoko bilkura hau atearak itxita egitea, COVID-19 kutsatzeko edo hedatzeko prebentzio neurri gisa onartzea, hala badagokio

Bozkatu ondoren, aho batez onartzen da bilkura hau atearak itxita egitea, COVID-19 kutsatzeko edo hedatzeko prebentzio neurri gisa.

2. Aurreko bilkurari dagokion akta zirriborroa (2020/10/15) onartzea, hala badagokio

Iñigo: Zehaztapen bat dugu. Mirenen parte hartzean ez da garbi gelditzen bera ez dagoela ados.

Idazkaria: 2. puntuari, berak "ados" esaten duenean?

Iñigo: Bai.

Idazkaria: Agian transkribituta dagoelako, zuzenean ulertzen zen. Zuzenduko dugu garbi gelditzeko.

3. Alkatearen dekretuen kontrola

Pedro: Guk galderak dauzkagu. 376a, egutegi fiskala. Zer nahi du esan?: Aprobatu genuena?

Itziar: Urteroko egutegi fiskala berdina da. Aurten OHZ atzeratu den bezala, 2021erako beste urtetan bezala aurreikusten da; kobruak noiz egingo diren. Horrela bidaltzen dute eta onartzen da.

Pedro: 389 eta 390, Udaltzain baten

1. Aprobare, si procede, celebrar esta sesión de pleno a puerta cerrada, como medida de prevención del contagio o propagación del COVID-19

Sometida a votación, el Pleno aprueba por unanimidad celebrar la sesión a puerta cerrada, como medida de prevención del contagio o propagación del COVID-19.

2. Aprobare, si procede, el borrador del acta de la sesión anterior (15/10/2020)

Iñigo: Tenemos una puntualización. En la intervención de Miren no se deja claro que no estaba de acuerdo.

Secretario: ¿En el 2º punto cuando dice "de acuerdo"?

Iñigo: Sí.

Secretario: Quizás porque está transcrita; en el directo se entendía. La rectificaremos para que quede claro.

3. Control de los decretos del alcalde

Pedro: Tenemos unas preguntas. El 376 es el calendario fiscal. ¿Qué quiere decir?, ¿es el que aprobamos?

Itziar: El calendario fiscal no varía. Este año se ha retrasado el IBI, pero para el 2021 se prevé que sea como en años anteriores; simplemente cuando van a ser los cobros. Nos lo envían así para su aprobación.

Pedro: El 389 y 390, nombramiento de



2020SPLE0012
12.BILERA: OHIKOA 2020/11/26

izendapena, kamioi gidari eta brigadako bat, horiek izango dira lehen hitz egin genuena, L. bajan dagoela eta, ezta?

Iñigo: 387: "Gozatuz diru-laguntzak". Horrek aurrekontua dauka?

Aritz: Partida dauka, euskara mailan dauka bere dirua. Kontua da hau guraso elkarteekin sustatzen dugun ekintza bat dela, eta guraso elkarteak ordaintzan duenez, diru-laguntza bat eskatu du. Aurrekontua ikusita zegoen; formalismo pixka bat da.

4. Debako Udaleko 1. Zenbakidun kreditu aldaketa onartzea, hala badagokio.

Itziar: Hau aurreko asteko ogasuneko batzordean ikusi genuen.

Aurreikusita daude: Animadeba 7.700€; urte hasieran lantzen hasi ziren eta faktura batzuk ordaindu behar ziren. Merkataritza bonuak 20.000€: udan adostu zen, baina kreditu aldaketak egin gabe zeuden. Simon Berasaluze plazako garajeen izurketa 14.200€. Debaberri aldizkaria 10.000€. Hondartzako hondakinak 9.000€. Vialine enpresa 15.000€. Arte eskolako indemnizazioa 9.233€ eta euskararen sustapenean 5.000€. Hain zuzen hurrengo egunean jakin genuen costasekin, adostu behar izan den Ondargainen losak apurtu eta tarima jartzea, aurreikusita ez zegoenez, kreditu aldaketa honi gehitu beharko genizkioke beste 20.000€.

Guztira 90.133€ izan beharrean, 110.133€ izango liazke. Gutxi gora behera, apurketa 15.000€ eta tarima

un policía municipal, un camionero, y uno para la brigada; será lo que hemos hablado antes, que L. está de baja, ¿no?

Iñigo: 387 "Gozatuz diru-laguntzak". ¿Eso tiene partida presupuestaria?

Aritz: Lo tiene asignado en la partida de euskera. Esto es una acción que promovemos con las asociaciones de padres, y como se trata de una actividad que la pagan ellos, solicitan una subvención. Estaba presupuestado, es simple formalismo.

4. Aprobar si procede, la modificación de créditos nº1 del Ayuntamiento de Deba.

Itziar: Esto ya lo tratamos en la comisión de hacienda de la semana pasada.

Está previsto: 7.700€ de Animadeba, se empezó a trabajar a principios de año y había que pagar unas facturas. Bonos comercio: 20.000€; se acordó en verano pero no se había realizado la modificación de créditos. Filtraciones de los garajes de la plaza Simon Berasaluze 14.200€. Revista Debaberri 10.000€. Residuos de la playa 9.000€. Empresa Vialine 15.000€. Indemnización escuela de Arte 9.233€ y fomento del euskera 5.000 €. Justo al día siguiente supimos también lo del arreglo que hemos tenido que acordar con costas en el Ondargain: romper las losas y colocar la tarima. Al no estar previsto, tendríamos que añadirle otros 20.000€.

En lugar de ser un total de 90.133 €, sería de 110.133 €. Aproximadamente la rotura 15.000€ y la tarima 5.000 €. Sumando 20.000€ más, aceptaríamos la



2020SPLE0012
12.BILERA: OHIKOA 2020/11/26

5.000€. 20.000€ gehituta kreditu aldaketa osoa onartuko genuke.

modificación total de créditos.

Osoko Bilkurak aho batez onartu du Deba Udaleko 1. zenbakidun kreditu aldaketa.

El Pleno aprueba por unanimidad la modificación de créditos nº 1 del Ayuntamiento de Deba.

5. 2019an Lankidetzarako onartutako 2 proiektuen aldaketa onartzea, hala badagokio

5. Aprobar, si procede, la modificación de los dos proyectos de cooperación aprobados en 2019

Aritz: Hau plenotik pasatu behar dugu arau batzuk daudelako, epe batzuk ere eta epe horien atzerapenak eskatzen dituztenez, eta epe horiek gaindituko lituzketenez, plenoak onartu beharko lituzke bi aldaketa hauek. Batzordetik pasatu zen, hor dituzue irizpenak. Printzipioz adostuta dago onartzea aldaketa horiek, baino plenoak onartu beharko du. Ados bazaudete.

Aritz: Esto hay que pasarlo por el pleno, porque hay unas reglas y unos plazos; como se solicita el aplazamiento de estos plazos, implica que estos se superarían, por ello el pleno debe aprobar estas dos modificaciones. Se pasó por la comisión, ahí están sus dictámenes. En principio está acordado aprobarlas, pero debe ser aprobado por el pleno. Si estáis de acuerdo.

Osoko Bilkurak aho batez onartu du 2019an Lankidetzarako onartutako bi proiektuen aldaketa.

El Pleno aprueba por unanimidad la modificación de los dos proyectos de cooperación aprobados en 2019.

6. 2020ko garapen aldeko nazioarteko lankidetzarako diru-laguntzak esleitzea, hala badagokio

6.- Conceder, si procede, las subvenciones de cooperación internacional al desarrollo de 2020

Gilen: Gobernu Batzordeko bileran onartu dugu hau, gai honen eskumena berak baitu. Beraz, aztergai hau ez dugu landuko.

Gilen: Ya se ha decidido en la Comisión de Gobierno, que es quien tiene la competencia sobre este tema. Por tanto, no trataremos este punto.

7.- 2019 urteko Enplegua eta Tokiko Garapena Sustatzeko Proiektuak Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuak diruz laguntzen dituenak gauzatzeko Elgoibarko, Soraluzeko, Mendaroko,

7.- suscribir, si procede, el Convenio de Encomienda de Gestión entre los Ayuntamientos de Elgoibar, Soraluze, Mendaro, Deba y Mutriku para la ejecución de los proyectos de impulso



2020SPLE0012
12.BILERA: OHIKOA 2020/11/26

Debako eta Mutrikuko Udalen artean burutzen den gestioa Debabarreneko lurralde eremuaren esku uzteko hitzarmena sinatzea, hala badagokio

Aritz: Teknikariaren irizpena dago azalduz nondik nora doan. Plenoak onartu behar duenez osoko bilkurara ekarri dugu.

Pedro: Elgoibarrek kudeatzen ditu?

Aritz: Bai, aurtengoak ere Elgoibarrek kudeatu ditu, orain etorriko zaigu.

Osoko Bilkurak aho batez onartu du 2019 urteko Enplegua eta Tokiko Garapena Sustatzeko Proiektuak Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuak diruz laguntzen dituenak gauzatzeko Elgoibarko, Soraluzeko, Mendaroko, Debako eta Mutrikuko Udalen artean burutzen den gestioa Debabarreneko lurralde eremuaren esku uzteko hitzarmena sinatzea.

8.- Euskararen Egunari buruzko adierazpen instituzionala onartzea, hala badagokio

Aritzek adierazpena irakurtzen du. (I.Eranskina)

Osoko Bilkurak aho batez onartu du Euskararen Egunari buruzko adierazpen instituzionala.

9.- Burgoseko Prozesuari buruzko adierazpen instituzionala onartzea, hala badagokio

del empleo y desarrollo local subvencionados por Lanbide-Servicio Vasco de Empleo, al ámbito territorial de Deba Behea/Bajo Deba del 2019

Aritz: Hay un informe del técnico informando sobre los pormenores. Lo traemos porque los debe aprobar el Pleno.

Pedro: ¿Lo gestiona Elgoibar?

Aritz: Si. Lo de este año también lo gestiona Elgoibar; llegará ahora.

El Pleno aprueba por unanimidad el Convenio de Encomienda de Gestión entre los Ayuntamientos de Elgoibar, Soraluze, Mendaro, Deba y Mutriku para la ejecución de los proyectos de impulso del empleo y desarrollo local subvencionados por Lanbide-Servicio Vasco de Empleo, al ámbito territorial de Deba Behea/Bajo Deba del 2019.

8.- Aprobar, si procede, la Declaración Institucional sobre el Día del Euskera

Aritz lee la declaración. (Anexo I)

El Pleno aprueba por unanimidad la Declaración Institucional sobre el Día del Euskera.

9.- Aprobar, si procede, la declaración institucional sobre el Proceso de Burgos



2020SPLE0012
12.BILERA: OHIKOA 2020/11/26

Gilen: 6. aztergaiarekin bezala, baino arrazoi oso desberdinagatik, 9. ere kenduko dugu beste lanketa bat egiten ari garelako batzordean eta ez zelako ikusten, beraz gai hau kenduko dugu.

Gilen: Al igual que el punto 6, pero por otras razones retiramos el punto 9; se están realizando otros trabajos en las comisiones y no lo vemos, por tanto quitamos este punto.

10.- Saharari buruzko mozioa onartzea, hala badagokio

Aritz: Mozioan ekarpenak eta aldaketak egin dira; adostu dira eta adostutakoa irakurtzera noa.

(Aritzek mozioa irakurtzen du). II. Eranskina.

Osoko Bilkurak aho batez onartu du Saharari buruzko mozioa.

10.- Aprobar, si procede, la moción sobre el Sahara

Aritz: En la moción se han realizado aportaciones y modificaciones; se ha llegado a un acuerdo y voy a leer lo acordado.

(Aritz lee la moción). Anexo II.

El Pleno aprueba por unanimidad la moción sobre el Sahara.

11.- Udal finantzaketarako Foru Funtzari eta zorpetzeari buruzko mozioa onartzea, hala badagokio

Itziar: Mozio hau da batez ere aurten egin behar izan ditugun murrizketengatik. Foru Aldunditik murrizketak egon direnez, gutxienez aukera izan dezagun udalok zorpetzeko.

(Itziarrek mozioa irakurtzen du). III. Eranskina.

Enrique: Gu ere ados gaude udalek murrizketa horiek eskatzearekin; bere garaian egin zen eta 2020 eta 2021ean eska dezakegu. Autokritika bat eginez, non sartu baikin, Maiatzeko osoko bilkuraren testuinguruan, mozio bat onartu zen, non eskatzen genuen

11.- Aprobar, si procede, la moción sobre el Fondo foral de financiación municipal y el endeudamiento

Itziar: Esta moción es sobre todo por los recortes que hemos tenido que realizar este año,. Como ha habido recortes por parte de la Diputación, para que los ayuntamientos tengamos posibilidad de endeudarnos.

(Itziar lee la moción). Anexo III.

Enrique: Nosotros también estamos de acuerdo en solicitar que los ayuntamientos puedan acceder a ese recorte que en su día se realizó, y que podemos solicitarlo durante el 2020 y 2021. Haciendo una autocrítica, en la que nos incluimos, en el contexto del



2020SPLE0012

12.BILERA: OHIKOA 2020/11/26

Aldundiak murrizketa aldebakarrez egin zuela, udalak kontuan hartu gabe ez ahal zen hori izango eskaera egiteko unerik egokiena? 2020 igaro da, eta 2021 baino ez zaigu geratzen aprobetxatzeko. Ados gaude eskatu behar dela, baina badakizue udalen batek orain eskatuko duela?

Gilen: Ezin dut ziurtasun osoz esan baino uste dut horietako bat lrungoa dela.

Itziar: Urte bukaeran, seguraski aste honetan, foru funtsetik jasotzen den azkeneko ekarpena jasoko dugu udal guztiek; baino likidazioa 2021eko Otsailean egiten denez, ea kontutan hartzen duten; guk ere aipatuko dugu.

Benetan beharra duten udalek behintzat aukera dute, eta 2021ean aukera hori esku artean izan dezaten. Egia da berak erabaki zutela; murrizketa %20koa izan zen, orain esan dute %13,3 aurreikusten dutela, baino urte bukaerarte ez dugu jakingo.

Iñigo: Guk ez dugu mozioa babestuko. Erabaki hau euskal finantzen kontseiluak hartu du, talde politiko guztietako udal ordezkariak osatzen dutena, eta hor ezarri zen aurreikusi beharreko diru-sarreraren murrizketa, konpentsazioak jasotzeko moduak eta epeak. Izan ere, Debako Udalak diru-sarreraren murrizketa horren zati proportzionala jasoko du orain, uste zena baino txikiagoa izan dena. Gure ustez, mekanismoak eta malgutasuna

pleno de mayo, se aprobó una moción donde solicitamos que la Diputación había hecho el recorte de forma unilateral, ¿sin tener en cuenta a los ayuntamientos, no hubiera sido ese el momento más adecuado para hacer la solicitud? 2020 ya ha pasado y sólo nos queda 2021 para aprovechar. ¿Estamos de acuerdo en que hay que pedir, pero sabéis de algún ayuntamiento que lo vaya a pedir ahora?

Gilen: No puedo decirlo con total seguridad, pero creo que uno de ellos es Irun.

Itziar: A finales de año, probablemente esta semana, los ayuntamientos recibiremos la última aportación del Fondo Foral, pero como la liquidación se realiza en febrero de 2021, a ver si la tienen en cuenta, también nosotros lo mencionaremos.

Al menos los ayuntamientos que realmente lo necesiten tendrán la oportunidad de hacerlo; para que tengan esa opción en el 2021. Es cierto que la reducción que decidieron fue del 20%, y ahora dicen que prevén un 13,3%, pero no lo sabremos hasta final de año.

Iñigo: Nosotros no vamos a apoyar la moción. La decisión la ha tomado el consejo de finanzas vascos, que está formado por representantes municipales de todos los grupos políticos, y ahí se estableció la reducción de ingresos que se iba a prever, las formas y plazos en los que se iban a recibir las compensaciones. De hecho, el Ayuntamiento de Deba va a recibir ahora la parte proporcional de esa reducción de ingresos que ha sido menor a los que se



2020SPLE0012
12.BILERA: OHIKOA 2020/11/26

daude, eta beraz, gure taldeak lekuz kanpo ikusten du Debako Udalak hori eskatu behar izatea. Era berean, covid-aren gaia dela-eta, udalen zorpetze-mezuak ikusten ari dira. Horregatik hau guztiagatik, ez dugu babestuko.

Aldeko bozkak: 10 (EH Bildu eta Debarren Ahotsa)
Aurkako bozkak: 3 (EAJ-PNV)

Osoko Bilkurak gehiengoz onartu du Udal finantzaketarako Foru Funtzari eta zorpetzeari buruzko mozioa.

estimaba. Creemos que hay mecanismos y flexibilidad, por lo que nuestro grupo ve fuera de lugar que el Ayuntamiento de Deba tenga que solicitar esto. También se están viendo mensajes de endeudamientos de ayuntamientos por el tema del Covid. Por todo ello no lo vamos a apoyar.

Votos a favor: 10 (EH Bildu y Debarren Ahotsa)
Votos en contra: 3 (EAJ-PNV)

El Pleno aprueba por mayoría la moción sobre el Fondo foral de financiación municipal y el endeudamiento.

12.- Eskari eta galderak

Gilen: Ba al dugu eskari edo galderarik?

Enrique: Bi gauza. Aurrekontuetarako partidak prestatzerakoan, nik begiratzen dut zer aurrekontu-partidari dagokion; partida osoa ez da inoiz agertzen. Gobernu-batzarrean onartutako % 0,7a ere ez dakigu nora zihoan, ezta 2019koa ere. Ona litzateke zenbatekoak agertzen badira, aurrekontu-partida osoa ere adieraztea, eta horrela jakin dezakegu sartuta dagoen ala ez.

Itziar: Batzordearen irizpenetan esaten duzu, ezta?

Enrique: Posible bada..., jakiteko nora doan eta ekarpenik dagoen edo ez jakiteko.

Enrique: Bestalde, 2021eko

12.- Ruegos y preguntas

Gilen: ¿Alguien tiene alguna pregunta o algo que comentar?

Enrique: Dos cosas. En la elaboración de las partidas para los presupuestos, yo suelo mirar a qué partida presupuestaria van; nunca aparece la partida completa. El 0,7% aprobado en la Junta de Gobierno tampoco sabemos a cuál iba, la del 2019 tampoco. Sería bueno que, si aparecen los importes, indicar la partida presupuestaria completa, y así podemos saber si está incorporado o no.

Itziar: ¿Te refieres a los dictámenes de la Comisión?

Enrique: Si se puede... para saber a dónde va y si tenemos aportación o no.

Enrique: Por otra parte, si habéis



2020SPLE0012
12.BILERA: OHIKOA 2020/11/26

aurrekontuen prozesua nola egingo den pentsatu al duzuen: batzordeka aztertuko duzuen, jarduteko jarraibide batzuk emango dituzuen, zer egin daitekeen eta zer ez, noiz hasiko garen?...

Itziar: Gu lanketa bat egiten hasita gaude eta asmoa batzordetan lantzea bai, baina alderdiekin ere lantzea. Ordenantza fiskaletan egin dugun bezala, gutxienez zirriborro baten gainean eta gero hor ikusi beharko da.

Aurreko Ogasunean aipatu genuen Foru Funtsa zenbatekoa hartzen dugun oinarri bezala aurrekontuak kalkulatzekoan, gutxienez hasiera batean, gero ikusiko dugu... inbertsioak ere erabaki beharko dira.

Datorren astean ez, hurrengoan seguraski lan bilera bat egitea gustatuko litzaiguke, ordenantza fiskalekin egin zen bezala; paraleloki batzordetan ere landuko dugu.

Enrique: Batzordeetara eraman ahal izateko irizpide batzuk ezarriko diren jakitea.

Gilen: Nik gehituko nuke bi lan daudela. Alde batetik batzorde bakoitzean. Baina ikusita orain arteko dinamika nola izan den elkarren artean lantzea. Nire ustez irizpideak denon artean markatzea ez dago gaizki. Noski, guri dagokigu gidatzea, baina zuek identifikatzen duzuen, ongi etorria izango da.

pensado cómo se va hacer el proceso de los presupuestos del 2021: si vais a tratarlo por comisiones, si vais a dar unas pautas de actuación, qué se puede hacer y qué no, cuándo vamos a empezar...

Itziar: Nosotros ya hemos empezado a trabajarlo, y la intención es la de trabajarlo en las comisiones pero también con los partidos. Al igual que se ha hecho con las ordenanzas fiscales, al menos sobre un borrador, y luego ya se verá.

En la Comisión de Hacienda anterior comentamos cuál va a ser el Fondo Foral que vamos a tomar como base para el cálculo, por lo menos en un inicio, luego ya se verá... habrá que decidir también las inversiones.

La semana que viene no, pero seguramente la próxima nos gustaría hacer una reunión de trabajo, como se hizo con las ordenanzas fiscales; paralelamente también se trabajará en las comisiones.

Enrique: Conocer si se van a marcar unos criterios para poderlos llevar a la comisión.

Gilen: Yo añadiría que hay dos trabajos. Por un lado, en cada una de las comisiones, pero viendo cómo hasta ahora la dinámica ha sido de trabajo conjunto, yo creo que el marcar los criterios entre todos no está mal. Está claro que nos corresponde a nosotros, pero lo que identifiquéis vosotros, será bienvenido.



2020SPLE0012
12.BILERA: OHIKOA 2020/11/26

Nik uste dut bi lerro ditugula: lerro zehatza batzordean, "hau bai, hau ez..." baina gero gure arteko lan bileran, bakoitzak ikusten dituen irizpideak eta erabili beharreko kriterioak, ongi etorriak izango dira. Aurtengo egoeraren zailtasuna da esperantza badagoela osasun mailan aldaketa nabarmen bat egoteko lehengo urtekotik. Honek ez dakigu zer eragin izango duen, baina prebisio ekonomikoa ez da hain optimista izango. Beraz, jarraitu beharko dugu murrizketa logikarekin abiapuntu bezala, baina lan dezente egin beharko dugu hori zehazteko. Baina helburua zuekin kontrastatzea izango da edozein irizpide orokorra.

Yo creo que tenemos dos líneas: una línea concreta en las comisiones: "Esto sí, esto no...". Pero luego en las reuniones de trabajo, los criterios que cada uno observe y los utilice serán bienvenidos. La dificultad de la situación de este año es que hay esperanzas de que haya un cambio significativo a nivel de salud respecto del año pasado. No sabemos cómo va a afectar, pero la previsión económica no va a ser tan optimista, así que habrá que seguir con la lógica de la reducción como punto de partida. Pero habrá que trabajar bastante para concretarla. Pero el objetivo será contrastar con vosotros cualquier criterio general.

Pedro: Entzun nuen PNVk Espainiako Gobernuari sostengua emateko baldintza bat dela trenbide pasaguneak konpontzea. Horien zerrenda ikusi nuen eta bertan Deba ez da agertzen. Ba al dago berririk?

Pedro: He oído que para que el PNV apoye al Gobierno de España, una de las condiciones era arreglar los pasos a nivel de ferrocarril. He visto un listado en el que no aparece Deba. ¿Tenemos alguna noticia?

Gilen: Hori ez dut entzun eta pixka bat joko kanpo uzten nauzu.

Gilen: No he oído nada, me pillas un poco fuera de juego.

Pedro: PNVko Aitor atera zen eta esan zuen akordioa lortzeko puntu bat zela trenbide pasagune arriskutsuak kentzea; ondoren zerrenda bat ikusi nuen EITBn eta Deba ez zen azaltzen. Agian ahaztu egin dira, edo berririk al dago?

Pedro: Salió Aitor del PNV y dijo que uno de los puntos para el acuerdo era quitar los pasos a nivel peligrosos. Luego vi un listado en EITB y Deba no aparecía. ¿Pueden haberse olvidado, o hay alguna noticia?

Gilen: Nik dakidala oraintxe bertan ez, baina begiratu eta aztertuko dut. Gainera, ETSrekin harremanetan gaude gai desberdinagatik; zuzendari aldaketa ere egon da ETSen. Gai hori daukagunez eta lehen ere eztabaidagai

Gilen: Que yo sepa, ahora mismo no hay nada. Pero lo revisaré. Además, estamos en contacto con ETS por diversas cuestiones; ha habido cambio de dirección en ETS. Como tenemos ese tema y anteriormente también ha sido



2020SPLE0012
12.BILERA: OHIKOA 2020/11/26

izan denez, garrantzitsua iruditzen zait jakitea. Agian gurea ez dago arriskutsuenen artean. Ez dakit zein den irizpidea, baina informatuko naiz.

tema de discusión, me parece importante saberlo. Quizás el nuestro no esté entre los más peligrosos. No sé cuál es el criterio, pero me informaré.

Isidor: Kanposantuari buruz. Kalean enteratu gara udaletxeak nola sinatu duen kanposantuko harrera. Nola dago hori? Egia da edo ez?

Isidor: Sobre el cementerio. Me he enterado en la calle de que el ayuntamiento ha firmado la recepción del cementerio. ¿Cómo está? ¿Es cierto?

Gilen: Azken Osoko Bilkuran esan genuen tramite hutsa zela, horren zain ginela eta pixka bat findu behar zela. Eta horrela egin da. Txostenak udaletxean daude eta teknikariek zuentzat ere lan egiten dute, nahi duzuenean kontrastatzek. Eta niri ere galdetu ahal zait.

Gilen: En el último pleno dijimos que era un mero trámite, que lo estábamos esperando y que precisaba pulirlo y así se ha hecho. Los informes están en el ayuntamiento, y los técnicos también trabajan para vosotros, si queréis contrastarlos. Y a mí también se me puede preguntar.

Isidor: Egia da?

Isidor: ¿Es verdad?

Gilen: Harrera egin da. Orain likidazioak, neurketak eta abar falta dira.

Gilen: Se ha hecho la recepción. Ahora faltan las liquidaciones, mediciones, etc...

Isidor: Baina harrera sinatu da?

Isidor: ¿Pero se ha firmado la recepción?

Gilen: Hori da, harrera sinatu da.

Gilen: Sí, se ha firmado la recepción.

Isidor: Beste galdera bat, araudiari buruz. Ez dakit alegaziorik egon diren. Pentsatzen dut sanidadeko baimena beharko dela, sinatu da? Orduan araudia bakarrik faltako da kanposantua martxan jartzeko.

Isidor: Otra pregunta, sobre la normativa. No sé si ha habido alegaciones. Pienso que hará falta la autorización de sanidad, ¿se ha firmado?... Entonces sólo falta la normativa para poner en marcha el cementerio.

Itziar: Ordenantza esaten duzu?

Itziar: ¿Te refieres a las ordenanzas?

Isidor: Bai.

Isidor: Sí.



2020SPLE0012
12.BILERA: OHIKOA 2020/11/26

Antxoka: Hori Zerbitzu Batzordean esan zen bezala, prozedimendua markatuta dago. Abenduak 15a baino lehen batzordea deituko dugu eta, aparejadoreak esan zuen bezala, prozedimendua segituko da.

Isidor: Alegaziorik egon da?

Antxoka: Aztertzeke gaiak aparejadoreak eramango ditu eta ordenantzak ere bai.

Isidor: Orduan, bere martxa normala jarraituko du.

Antxoka: Bai.

Gilen: Besterik?

Gilen: Bukatutzat ematen dugu osoko bilkura.

Jorge González Endemano
Idazkaria

Antxoka: Como se dijo en la Comisión de Servicios, hay un procedimiento marcado. Antes del 15 de diciembre se convocará una comisión, y como dijo la aparejadora, se seguirá el procedimiento.

Isidor: ¿Ha habido alegaciones?

Antxoka: Los temas a tratar los llevará el aparejador, al igual que las ordenanzas.

Isidor: Entonces, sigue el proceso normal.

Antxoka: Sí.

Gilen: ¿Algo más?

Gilen: Damos por finalizado el pleno.

Gilen Garcia Boyra
Alkatea





2020SPLE0012
12.BILERA: OHIKOA 2020/11/26

I.ERANSKINA / ANEXO I

2020KO EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA – ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Euskara, aurrerabide Gizartea euskaraz biziberritzea helburu

Inoiz inork pentsatuko ez zukeen eran jo gaitu gaitzak. Beste horrenbeste, gaitzaren ondorioek. Mundu osoa, gizarte guztiak, egitura guztiak, pertsona guztiok jarri gaitu geure benetako neurriaren aurrean, buruz buru. Kupidarik gabe utzi du agerian ahaztu nahi genukeen zerbait: zaurgarriak gara; zaurituta gaude.

Erantzukizunaren bidetik heldu diogu erronkari, denon indarrak batuz. Bai baitakigu ez dagoela beste irtenbiderik. Euskararen hiztun elkarteak ere sufritu du pandemiaren eragina, bereziki erabilera mailan. Zentzu horretan, erakunde publikoen konpromisoa sendoa eta egindako lana handia izanagatik ere, ezin izan diogu nahi bezala erantzun.

Euskaldunok, baina, ezin dugu ahaztu badela funtsezko ekarpen bat, gizarte-ahalegin itzel eta miresgarri horren osagai ezinbestekoa eta geure esku soilik dagoena: euskaraz egin behar diogu aurre mundu mailako krisiari; euskaraz egin behar dugu ilunpetik argira eramango gaituen bidea; euskaraz sendatuko gara, euskaraz sendatuko dugu geure gizartea; euskaraz besarkatuko ditugu mundu osoko gizakiak. Bat garelako. Euskaraz bat mundu osoarekin.

Horixe da euskaldunok –neurri batean edo bestean euskaraz bizi garen munduko herritarrok, alegia– euskara gero eta gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan erabiliz giza garapenari egiten diogun ekarria. Gizarte kudeaketa aurreratuari gaineratzen diogun balio erantsia.

Banaka heltzen diogu, jakina, euskaraz gero eta gehiago bizitzeko konpromisoari. Nahitaezko zutabea baita norberaren eginahal hori edozein aurrerabidetan, oso bereziki gizarte prozesu konplexuetan, eta horixe da euskara biziberritzea helburu duena ere: gizarte prozesu konplexu bat, ertz eta osagai ugari duena. Ongi asko dakigu hori mundu osoko euskaldunok.

Badakigu, besteak beste, euskaldunok euskararen hiztun elkarte osatzen dugula, eta Euskaraldian norberaren erabakimenetik abiatzen dela euskara gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan erabiltzerakoan inguruan hainbatetan sortzen zaizkigun oztopoak gainditzeko bulkada.

Baina badakigu, era berean, ezinbestekoa dugula elkarrengana biltzen gaituen bulkada ere. Norabide biko bektorea baita euskara eta euskaldunok lotzen gaituena: euskarak herri



2020SPLE0012
12.BILERA: OHIKOA 2020/11/26

egiten gaitu; euskal hiztunon komunitateak egiten du euskara orainaren eta etorkizunaren hizkuntza.

Bide horretatik heldu zaizkio beti euskarari aurrerapauso behinenak: norberaren eta gizartearen konpromisoak sendo uztartzetik; unean uneko beharrezane euskaraz erantzuteko erabaki sendotik; etorkizunerako bidea euskaraz zolatzeko euskal instituzioek, gizarteak eta gutariko bakoitzak egindakotik.

Euskaraldiak eskaintzen digu aurten berriz ere zailtasunak aukera bilakatzeko abagunea, krisia aukera bihurtzeko lanabesa. Ingurumari aldrebesean dator, ez bairik gabe, aurtengoa, eta horrek areagotu egingo du guztion eta bakoitzaren konpromisoaren balioa, administrazio eta erakunde publikoena barne.

Aurtengoan, balio berezi batez apainduko da ahoa bizi, belarria prest eta bihotza kartsu dugun guztion ekimena. Aurtengoan, inoiz baino erabakigarriagoa izango da euskararekiko gertutasunezko keinu praktiko oro, euskal hiztunongandik zein euskararen zabalkundean erdaretatik lagundu nahi dutenengandik datorrela ere.

Esanahi berezi batez jantziko da aurten, ezinbestez, euskara gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan erabiltzeko ahalegina: egokitu zaigun ataka larritik ateratzeko erabakiari, euskaraz ateratzearen ezinbestekotasuna erantsiko diogu euskal hiztun nahiz euskararen lagun orok.

Izan ere, bagenekien euskaraz zetorrela geroa, euskaraz ere mintzo dela etorkizuna, eta aurten beste zerbait ikasi dugu: egoera zailetatik ateratzeko eginahalean lagungarri dugu euskara, bidelagun ezinbestekoa. Krisialditik sendoago ateratzea helburu dugun honetan, erabil dezagun euskara ere aurrera egiteko lanabes gisa.

*Euskaraz biziberritu behar dugulako geure gizartea.
Euskararen ahotsa zor diogulako munduari.
Euskaraz garelako munduko herritar.
Euskara aurrerabidea delako.*

Hori horrela, Debako Udal erakunde honek, honako konpromisoak hartzen dituela adierazten du 2020ko euskararen nazioarteko egunaren baitan:

1. Udala *arigune* bilakatzea, euskara izan dadila gure ohiko hizkuntza jakinarazpen eta gainerako erakunde, hornitzaile zein elkarteekiko harremanetan.
2. Gure administrazio publikoaren kontratuetan hizkuntza-irizpideak zehaztea eta ezartzea.



2020SPLE0012
12.BILERA: OHIKOA 2020/11/26

3. Euskararen erabilera sustatzen duten hainbat tresna sustatzea, hala nola softwarea eta oinarrizko aplikazioak euskaraz, astialdirako IKT produktuak, .eus domeinua eta euskararen erabilera interneten.
4. UEMA babestu, indartu eta zabaltzea.
5. Euskararen erabilera eta presentzia bermatzea erabiltzen ditugun komunikabide guztietan.
6. Gazteentzako euskarazko aisialdi-zerbitzuak sustatu eta zabaltzea.
7. Familia-eremuetan euskararen erabilera eta transmisioa sustatzea.
8. Herriko gizarte eragile eta euskalgintzarekin batera elkarlanari eustea.

Deban, 2020ko azaroaren 26an.

II.ERANSKINA / ANEXO II

SAHARARI BURUZKO MOZIOA

Zioa

1975eko azaroaren 14an, duela 45 urte, "Espainiaren, Marokoren eta Mauritaniaren artean Mendebaldeko Saharari buruzko printzipio-adierazpena" izeneko dokumentua sinatu zen Madrilén, "Madrilgo hiruko akordioak" izenez ezagutzen dena, eta Mendebaldeko Saharako herria behartutako lekualdatzera eta Marokoko Erresumak bere lurak legez kanpo okupatzera kondenatu zuten.

Madrilgo akordioak ez zuen balio legalik, Saharako aldearen presentziarik gabe sinatu baitzen. Akordio horietan xedatutakoaren arabera, lurraldeko administrazioa hainbat neurriren mende zegoen, eta neurri horien indarraldia 1976ko otsailaren 26an amaituko zen. Gainera, horrek Nazio Batuen Erakundea traizionatzea zekarren, ez baititu Madrilgo akordioak onartzen, Mendebaldeko Sahararen estatusari buruzko jarrera desberdina duelako; izan ere, lurralde ez-autonomoen eta deskolonizatzeko dauden lurraldeen zerrendan sartzen du.



2020SPLE0012
12.BILERA: OHIKOA 2020/11/26

Estatu espainiarra, Nazio Batuen presioa gora-behera, Mendebaldeko Sahararen deskolonizazio prozesua atzeratzen joan zen, Maroko lehenik eta geroago Mauritania lurralde honen inguruko aldarrikapenak areagotzen joan zedin, Hagako Nazioarteko Justizia Gorteak inolako eskubiderik ez zutela ebatzi zuelarik. Auzitegi horrek saharar herriari autodeterminaziorako eskubide besterenezina ahalbidetzeko eta bere etorkizuna erabakitzeak hitza emateko beharra ezarri zuen.

Bestalde, Nazio Batuek MINURSOri agindu bat eman zioten, baina ez du bete, eta Marokoko Erresumaren alde egin zuen. Gainera, ez zuen eskumena eman giza eskubideen zaintzan, eta, beraz, ez zuen segurtasuna bermatu eremu horretan.

Fronte Polisarioak Marokotik Guergueratera, Mauritaniako mugara, indar militarrek bidali izana salatu du iragan asteetan. Ekintzaile sahararrek kanpaldia egin zuten zonaldean, lurraldean legez kanpo zeuden tropa marokoarren irteera eskatzeko, Nazio Batuek Bake Akordioan (1988) eta Marokoren eta Fronte Polisarioaren arteko akordio militarretan jasotzen den bezala, bertan debekatzen baitzen Marokoko harresi militarrean pasabideak irekitzea.

Azaroaren 13an, Marokoko Erresumak Fronte Polisarioarekin 1991n sinatutako su-etena urratu zuen. Fronte Polisarioak saharar biztanleria zibila babesteko erasoari aurre egin zion, eta su-etena akordioaren amaiera iragarri zuen. Beraz, lurralde osoan gerra-egoera ezarri da.

Espainiako Gobernuak, Mendebaldeko Sahara, deskolonizatzeko zain dagoen Afrikako kontinenteko azken lurralde ez-autonomoaren, de iure (legezko) administratzaile gisa, saharar herritarren segurtasuna zaintzeko erantzukizuna du, eta MINURSOrekin batera, saharar herriaren autodeterminazio-erreferenduma betearazteko agindua.

Ildo horretan, euskal erakundeak eta gizarte zibila lanean ari gara Fronte Polisarioaren Ordezkaritzarekin, Saharako herriaren eskubide legitimoen defentsan erreferente izaten jarraitzeko.

Arestian aipatutako guztiagatik, **udal honek**:

- Elkartasuna eta babesa adierazten die Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoari, SEAD, eta Fronte Polisarioari.
- Eusko Jaurlaritzari SEADen eta Fronte Polisarioaren aldeko jarrera publikoa har dezala eskatzen dio.
- Marokoko Erresumak 1991n Fronte Polisarioarekin sinatutako su-etenenaren apurketa salatzen du. Horren harira, Saharako Gobernuak erasoari emandako erantzuna babestu



2020SPLE0012
12.BILERA: OHIKOA 2020/11/26

du. Saharar herria babesten jarraituko du, bere lurraldearen subiranotasuna eta saharar biztanleria zibila babesteko hartzen dituen erabakietan.

- Nazio Batuen ebazpenen arabera, saharar herriaren autodeterminazio-eskubidea defendatzen du, eta Marokoko Erresumak saharar lurraldearen legez kanpo okupazioa salatzen du.
- Mendebaldeko Saharan erreferenduma egiteko MINURSOren agindua ez betetzea salatzen du. Eta Nazio Batuen Batzar Nagusiari eskatzen dio bere gain har dezala dagokion erantzukizuna, eta ondorioz, aplika ditzala saharar herriaren subiranotasunaren aldeko eta Marokoko Erresumak saharar biztanleria zibilari egindako giza eskubideen urraketa sistematikoa salatzeko onartu dituen ebazpenak.
- Mendebaldeko Sahararen de iure administratzaile gisa duen erantzukizuna bere gain hartzera, eta horren arabera jokatzeko eskatzen dio Espainiako Gobernuari, parte aktiboa izan dadin saharar herriarentzako erreferenduma lortzeko eta saharar biztanleria zibila babesteko.
- Europar Batasuneko erakundeei SEAD eta Fronte Polisarioa defendatzeko eskatzen die, saharar herriaren eskubide legitimoen defentsan aktiboki parte hartuz.
- Berretsi egiten ditu saharar herriaren askatasunaren alde eta Marokoko legez kanpoko okupazioaren aurka onartutako adierazpen instituzionalak eta gainerako akordioak.
- Nazioarteko komunitatea saharar herria defendatzera deitzen du, Saharako Estatu independenteak eskualdean oreka eta egonkortasunerako faktore gisa duen garrantzia aldarrikatuz.
- Kezka berezia adierazten du lurralde okupatuetan bizi diren zibil saharauiekiko. Ildo horretan, Europako erakunde eta gobernuak eta NBERi eskatzen die giza eskubideen arloko behaketa-ordezkaritzak bidal ditzatela.

Deban, 2020ko azaroaren 26an

MOCIÓN SOBRE EL SAHARA

Motivo

El 14 de noviembre de 1975, hace 45 años, se firmaba en Madrid un documento denominado «Declaración de principios entre España, Marruecos y Mauritania sobre el



2020SPLE0012
12.BILERA: OHIKOA 2020/11/26

Sáhara Occidental», conocido como “acuerdos tripartitos de Madrid”, que terminaron condenando al pueblo del Sáhara Occidental al desplazamiento forzado y a la ocupación ilegal de sus tierras por parte del Reino de Marruecos.

Los acuerdos de Madrid no tenían ningún valor legal porque se firmaron en ausencia de la parte saharauí. Según lo dispuesto en estos acuerdos, la administración del territorio dependía de una serie de medidas cuya vigencia terminaría el 26 de febrero de 1976. Además, esto suponía traicionar la Organización de las Naciones Unidas, que no reconoce los acuerdos de Madrid, porque tiene una postura diferente acerca del estatus del Sáhara Occidental; ya que lo incluye en la lista de los territorios no autónomos y pendientes de descolonización.

El Estado español había ido retrasando, pese a la presión de Naciones Unidas, el proceso descolonizador del Sáhara Occidental permitiendo que Marruecos primero y más tarde Mauritania, fueran incrementando sus reivindicaciones sobre este territorio, al que la Corte Internacional de Justicia de La Haya dictaminó que no tenían ningún derecho. Este Tribunal estableció la necesidad de posibilitar al pueblo saharauí su inalienable derecho a la autodeterminación, y otorgarle la palabra para decidir su futuro.

Por otra parte, las Naciones Unidas otorgaron un mandato a la MINURSO, que no ha cumplido, favoreciendo al Reino de Marruecos, además de no otorgar la competencia en la vigilancia en materia de derechos humanos, y por tanto, de no garantizar la seguridad en la zona.

El Frente Polisario había denunciado en pasadas semanas, el envío de fuerzas militares de Marruecos a la zona del paso de Guerguerat, en la frontera con Mauritania. Activistas saharauíes habían acampado en la zona para reclamar la salida de las tropas marroquíes que se encontraban de manera ilegal en el territorio, tal y como Naciones Unidas recoge en el Acuerdo de Paz (1988) y los acuerdos militares entre Marruecos y el Frente Polisario, donde se prohibía la apertura de pasos en el muro militar marroquí.

El pasado 13 de noviembre, el Reino de Marruecos viola el alto al fuego firmado con el Frente Polisario en 1991. El Frente Polisario responde en legítima defensa para proteger a la población civil saharauí, y anuncia el fin del acuerdo de alto el fuego. Se decreta por tanto, el estado de guerra en todo el territorio.

El Gobierno español, como potencia administradora de iure del Sáhara Occidental, último territorio no autónomo del continente africano pendiente de descolonización, tiene la responsabilidad de velar por la seguridad de la población saharauí y de hacer cumplir, junto a la MINURSO, el mandato del referéndum de autodeterminación del pueblo saharauí.



2020SPLE0012
12.BILERA: OHIKOA 2020/11/26

En este sentido, desde las instituciones vascas y desde la sociedad civil, estamos trabajando conjuntamente con la Delegación del Frente Polisario para seguir siendo referentes en la defensa de los legítimos derechos del pueblo saharaui.

Por todo lo mencionado anteriormente, **este ayuntamiento**:

- Muestra su solidaridad y apoyo a la República Árabe Saharaui Democrática- RASD y al Frente Polisario.
- Insta al Gobierno Vasco / Gobierno Navarro a posicionarse públicamente en favor de la RASD y el Frente Polisario.
- Denuncia la ruptura del acuerdo de Alto al fuego firmado en 1991 con el Frente Polisario, por parte de Reino de Marruecos. En este sentido, apoya la respuesta del Gobierno Saharaui a esta agresión. Continuará apoyando al pueblo Saharaui en las decisiones que considere oportuno tomar para defender la soberanía del territorio y la protección a la población civil saharaui.
- Defiende el derecho de autodeterminación del pueblo saharaui de conformidad con las resoluciones de Naciones Unidas, y denuncia la ocupación ilegal del territorio saharaui por parte del Reino de Marruecos.
- Denuncia el incumplimiento del mandato de la MINURSO para la celebración de un referéndum en el Sáhara Occidental. E insta a la Asamblea General de Naciones Unidas a asumir sus responsabilidades, y consecuencia, a aplicar las resoluciones pertinentes en favor de la soberanía del pueblo saharaui y de denuncia de la vulneración sistemática de derechos humanos perpetrada por el Reino de Marruecos hacia la población civil saharaui.
- Insta al gobierno español ha asumir su responsabilidad como potencia administradora de iure del Sáhara Occidental, y a actuar en consecuencia, siendo parte activa en la consecución del referéndum para el pueblo saharaui, y en la protección de la población civil saharaui.
- Insta a las Instituciones de la UE a defender a la RASD y al Frente Polisario, tomando parte activa en defensa de los legítimos derechos del pueblo saharaui.
- Se ratifica en las declaraciones institucionales y demás acuerdos aprobados en favor de la libertad del pueblo saharaui y en contra de la ocupación ilegal marroquí.
- Insta a la comunidad internacional a defender al pueblo saharaui, apelando a la importancia de un Estado Saharaui independiente como factor de equilibrio y estabilidad en la región.



2020SPLE0012
12.BILERA: OHIKOA 2020/11/26

· Muestra su especial preocupación por las y los civiles saharauis que viven en los territorios ocupados. En este sentido, insta a las instituciones y gobiernos europeos, y a la ONU, a enviar delegaciones de observación en materia de Derechos Humanos.

En Deba, a 26 de noviembre de 2020

III ERANSKINA / ANEXO III

UDAL FINANTZAKETARAKO FORU FUNTSARI ETA ZORPETZEARI BURUZKO MOZIOA

COVID-19 koronabirusak mundu osoan eragindako osasun- eta ekonomia-krisiak pandemiak bereziki kaltetutako zerbitzuetan gastu handiagoa eragin du, bai eta zerga itunduen bidezko diru-bilketa txikiagoa ere.

Udalek beren aurreikuspenak alde batera utzi dituzte eta beste lehentasun eta behar batzuei aurre egin behar izan diete, hala nola: herritarren osasun-segurtasuna bermatzeko neurriak hartu, garbiketa-zerbitzu gehigarriak ezarri, gizarte-politiken esparruan sortutako behar berriei erantzun, udal-merkataritza eta -zerbitzuak babestu... Gainera, udalen zerbitzu asko bertan behera uzteak, alarma egoeraren ondorioz, galera ekonomikoak eragin ditu udaletan.

Une honetan, koherenteak izan behar dugu deskribatutako egoera berriarekin, gastu eta diru-sarrera handienak arintzeko eta euskal ekonomiaren susperraldia eta dinamizazioa bultzatzeko.

Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak, irailaren 30ean bilduta, 2020an % 3,5eko defizita onartu zuen euskal erakundeentzat, eta % 3koa 2021erako (% 2,2 Eusko Jaurlaritzarentzat eta % 0,8 aldundientzat). Akordio horretan, lehen aldiz, foru-aldundiei zorpetzeko gaitasun propioa aitortzen zaie.

Horrela, Ogasun Ministerioarekin uztailan itxitako akordioari (defizitaren % 2,6 hitzartu zen), foru aldundientzako berariazko % 0,9 gehitu zaio orain, eta % 3,5 euskal erakunde guztientzat

2020an.



2020SPLE0012
12.BILERA: OHIKOA 2020/11/26

Eusko Jaurlaritzako Ogasun sailburuak adierazi du zorpetze-eragiketen kargurako finantzaketa handiagoa eta, ondorioz, epe luzeko zorra handitzea zentzuz onar daitekeela, Euskal Autonomia Erkidegoaren finantza- eta kaudimen-egoera kontuan hartuta, eta zor publikoaren maila autonomia-erkidego guztietako txikien artean dagoela Barne Produktu Gordinari dagokionez.

Gipuzkoako Foru Aldundiak erabaki zuen udalei % 20 murriztuko zitzaiela azken bi hiruhilekoetan 2020rako bideratuko zen foru funtsa. Baina 2020ko urriaren 15ean egindako Finantza Kontseiluan adierazi zen bilketa % 13,3 jaitsiko zela.

Euskal erakundeen interesen aldeko testuinguru horretan, inoiz baino beharrezkoagoa da Gipuzkoako udalak udal-aurrekontuen finantza-jarraitutasuna erraztuko duen akordio batean integratzea, Gipuzkoako Foru Aldundiak zorpetzeko duen ahalmenaren bidez. Horrek balioko luke Udal Finantzaketarako Foru Funtsetik (FOFIM) datozen diru-sarrerak ez murrizteko ekitaldi honetan eta hurrengoan, COVID-19k sortutako egungo krisiaren bi urte gogorrenetan. Udalek Aldundiarekin duten zorpetze-formula horren bidez, udalek itzuli egingo lukete 2022an eta 2023an itundutako zergengatik izandako diru-sarriren murrizketari dagokion zatia. Bizkaiko eta Arabako foru erakundeek dagoeneko iragarri duten formula da, eta gure lurraldera zabaltzeko eskatzen dugu.

Horrela, datorren urteko udal aurrekontuen plangintza abiatuko litzateke, ziurtasun- eta egonkortasun-bermeekin, eta, zalantzarik gabe, gure hiriko herritarren onerako izango litzateke, egungo egoera ekonomiko eta sanitarioa gehien pairatzen ari diren gizarteko sektoreekiko konpromiso publikoak indartuz.

Horregatik, **Debako Udalbatzak** honako hau erabaki du:

1. Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzea azaroan egin beharreko Foru Funtsetan ordainketa Finantza Kontseiluan 2020ko urriaren 15ean informatutako aurreikuspenekin bat etorritik egin dadila.
2. Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzea, zorpetzeko duen gaitasuna kontuan hartuta, udalek, hala nahi badute, 2020rako FFFMren hasierako aurreikuspenetan dagokien guztizko zenbatekora arte eska dezatela. Udalek 2022an eta 2023an konpentsatuko dizkiote zenbateko horiek Foru Aldundiari.



2020SPLE0012
12.BILERA: OHIKOA 2020/11/26

3. Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzea, hala nahi duten udalekin batera, Itunaren Batzorde Mistoaren esparruan itundutako zenbatekoaren % 40 gutxienez zorpetzeko ahalmena izatea.

4.- Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Eudeli erabaki honen berri ematea.

Deban, 2020ko azaroaren 26an.

MOCIÓN EN RELACIÓN AL FONDO FORAL DE FINANCIACIÓN MUNICIPAL Y EL ENDEUDAMIENTO

La crisis sanitaria y económica provocada por el coronavirus COVID-19 a nivel mundial, ha supuesto un mayor gasto en servicios especialmente afectados por la pandemia, así como una menor recaudación por tributos concertados.

Los ayuntamientos han abandonado sus previsiones y se han enfrentado a otras prioridades y necesidades: adoptar medidas para garantizar la seguridad sanitaria de los ciudadanos, establecer servicios adicionales de limpieza, atender las nuevas necesidades surgidas en el ámbito de las políticas sociales, apoyar el comercio y los servicios municipales, ...

Además, la suspensión de muchos servicios de los ayuntamientos, como consecuencia de la situación de alarma también ha provocado pérdidas económicas en los ayuntamientos.

En estos momentos es necesario ser coherentes con el nuevo escenario descrito para paliar los mayores gastos y menores ingresos e impulsar la recuperación y dinamización de la economía vasca.

La Comisión Mixta del Concierto Económico, reunida el pasado 30 de septiembre, aprobó para las instituciones vascas un déficit del 3,5% en 2020 y del 3% para 2021% (2,2% para el Gobierno Vasco y un 0,8% para las diputaciones), en un acuerdo en el que, por primera vez, se reconoce a las diputaciones forales una capacidad de endeudamiento propio.

De esta forma, al acuerdo cerrado con el Ministerio de Hacienda en julio pasado, por el que se pactó el 2,6% de déficit, se le suma ahora un 0,9% específico para las diputaciones forales, llegando así al 3,5% para el conjunto de las instituciones vascas en 2020.



2020SPLE0012
12.BILERA: OHIKOA 2020/11/26

El consejero de Hacienda del Gobierno Vasco ha manifestado que esta mayor financiación con cargo a operaciones de endeudamiento, con el consiguiente incremento de la deuda a largo plazo, puede ser razonablemente asumida dada la situación financiera y de solvencia de la Comunidad Autónoma de Euskadi, con un nivel de deuda pública en relación con el PIB entre los más bajos de todas la Comunidades Autónomas.

La Diputación de Gipuzkoa decidió que a los ayuntamientos se les reduciría un 20% del fondo foral que se preveía destinar para 2020 en los dos últimos trimestres. Pero en el Consejo de Finanzas celebrado el 15 de octubre de 2020 se indicó que la recaudación bajaría un 13,3%.

En este contexto favorable para los intereses de las instituciones vascas, se hace más necesario que nunca que los ayuntamientos gipuzkoanos seamos integrados en un acuerdo que facilite la continuidad financiera de los presupuestos municipales, a través de la capacidad de endeudamiento que pasa a tener la Diputación Foral de Gipuzkoa. Ello serviría para no tener una merma de ingresos procedentes del Fondo Foral de Financiación Municipal (FOFIM) durante el presente ejercicio y el siguiente, los dos años más duros de la actual crisis generada por la COVID-19. A través de esta fórmula de endeudamiento de los ayuntamientos con la Diputación, los consistorios devolveríamos la parte correspondiente de la merma de ingresos por tributos concertados en los años 2022 y 2023. Es una fórmula ya anunciada por los entes forales de Bizkaia y Araba y que pedimos se extienda a nuestro territorio.

De esta manera, se arrancaríamos una planificación de los presupuestos municipales del próximo año con garantías de certidumbre y estabilidad y que sin duda redundará en beneficio de los ciudadanos y ciudadanas de nuestra Ciudad reforzando los compromisos públicos con aquellos sectores de la sociedad que más están sufriendo la actual situación económica y sanitaria.

Es por ello que, el Pleno del Ayuntamiento de Deba ACUERDA:

1. Solicitar a la Diputación Foral de Gipuzkoa que el pago del Fondo Foral a realizar en noviembre se realice en coherencia con las previsiones informadas en el Consejo de Finanzas de 15 de octubre de 2020.
2. Instar a la Diputación Foral de Gipuzkoa que, teniendo en cuenta su capacidad de endeudamiento, permita a los ayuntamientos, si así lo desean, solicitar hasta la cuantía total que les corresponde en las previsiones iniciales del FFFM para el año 2020. Los



2020SPLE0012
12.BILERA: OHIKOA 2020/11/26

Ayuntamientos compensarán estas cuantías a la Diputación Foral en los años 2022 y 2023.

3. Solicitar a la Diputación Foral de Gipuzkoa que comparta con los ayuntamientos que así lo deseen, la capacidad de endeudamiento de al menos el 40% de la cantidad pactada en el marco de la Comisión Mixta del Concierto.

4.- Comunicar el presente acuerdo a la Diputación Foral de Gipuzkoa y a EUDEL.

En Deba, a 26 de noviembre de 2020.